



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko uztailaren 2an

53 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Batxilergoko Lehen Maila, Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ureztalurrei buruzko plan bat bidal dezan. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsia (3. or.).

—Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioan egiten diren aparteko orduei buruzko ikerlan bat egin dezan. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia (4. or.).

—Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hondakindegia eta zaborteak desagertarazi eta antolatzekeko plan bat egin dezan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aragoiko Diputazio Orokorrekin hitzarmen bat izenpetu dezan Las Planas de la Negran jartzeko den parke eolikoa gelditzeke. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak baztertua (5. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Ablitasko Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (6. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Batxilergoko Lehen Maila, Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Batxilergoko Lehen Maila, Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen Foru Lege proiektuari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Proiektu hori 1998ko maiatzaren 27ko 37 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, emendakin hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahaliko dira:

– 6, 7 eta 8 zenbakiko emendakinak, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztuak.

– 3 eta 5 zenbakiko emendakinak, «Askotariako» Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztuak.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak aurkezturiko boto partikularrak, titulua, zioen azalpena, 1. artikulua, 2. artikulua eta azken xedapenari buruzkoak.

– 1, 4 eta 9 zenbakiko emendakinak, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztuak.

Emendakin horiek 1998ko ekainaren 22ko 47 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 1998ko ekainaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

IRIZPENA

Titulua

(KENDUTA)

ZIOEN AZALPENA

(KENDUTA)

1. artikulua. (KENDUTA)

2. artikulua. (KENDUTA)

Azken xedapena

(KENDUTA)

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ureztalurrei buruzko plan bat bidal dezan

NEKAZARITZA, ABELTZAINNTZA ETA MENDI BATZORDEAK ONETSIA

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak, 1998ko ekainaren 24an eginiko bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ureztalurrei buruzko plan bat bidal dezan. Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ureztalurrei buruzko plan bat bidal dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Biltzar honi gehienez ere hiru hilabeteko epean bidal diezaion Ureztalurrei buruzko Plan berri bat, onetsia izan dadin. Plan horrek dauden ureztalurrak modernizatzeko eta ureztalur berriak eratzeko epe ertain eta luzerako aurreikuspenak, Nafarroak dituen edo aurreikusita dituen baliabide hidrikoen erabilera arrazionalan oinarriturikoak, jasoko ditu.

2.- Planak honako eduki hau izan beharko du:

- Ureztalurren arloan gaur egun dagoen egoeraren deskribapena, etorkizunari begira antzematen diren arazoei buruzko diagnostikoa eta horien bilakaeraren aurreikuspena.

- Planarekin lortu nahi diren helburuak.

- Ureztalurrak hautatzeko edo, hala bada, horien mugak ezartzeko irizpideak.

- Plan hau garatzeko beharrezkoak diren jarduketak eta neurriak. Eskualde horietarako Lurzati Kontzentrazioarako Plana ere gehituko zaiei horiei.

- Hori garatu ahal izateko azpiegitura publiko nagusien aipamena.

- Hori garatu eta betetzeko gutxi gorabeherako egutegia, epe ertain eta luzean.

- Planari esleituriko baliabideen estimazioa, beste erakunde publikoetatik lor daitezkeen finantzaketa-iturrien analisiarekin batera.

- Aipaturiko Planaren edukia garatzeko proposa litezkeen legezko ekimenak, hala bada.

3.- Helburuen artean, Planak arreta berezia eskainiko die honako hauei:

- Nekazaritzako elikagaien industria garatzea.

- Ureztaketari eta nekazaritza-industriari loturiko enplegua sortzea, bereziki nekazari gazteak erakartzeari dagokionean.

- Ureztalurretarako jarritako baliabide hidraulikoaren erabilera arrazionalizazioa eta efizientzia, eta ureztatzaileari aholkuak emateko zerbitzu baten abiarazpena aztertzea.

- Higaduraren eta basamortutzearen kontrola eta horiei aurrea hartzea.

- Energia berriztakor eta ordezkoei bultzada ematea, horretarako apropos diren laboreetan oinarrituz.

- Elikaduraz kanpoko laboreen balizko produktioa aztertzea eta energia produzitzeko egokiak diren ikertzea.

- Ureztalurren bateragarritasuna ingurugiroarekin, naturguneekin eta basa espezie babestuekin edo babes handiagoa behar dutenekin.

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioan egiten diren aparteko orduei buruzko ikerlan bat egin dezan

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 1998ko ekainaren 25ean eginiko bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioan egiten diren aparteko orduei buruzko ikerlan bat egin dezan. Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioan egiten diren aparteko orduei buruzko ikerlan bat egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, hiru hilabeteko epean, Biltzarrean aurrean aparteko ordu estrukturaleri buruzko ikerlana aurkez dezan, eta ikerlan horretan sakonki azter daitezela zergatiak eta aztertu ere langile berriak kontratatuz aparteko ordu horiek benetan gutxitzea, aipatu azterlanetik hala ateratzen bada.

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hondakin-degi eta zabortegeiak desagertarazi eta antolatzeke plan bat egin dezan

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSIA

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak, 1998ko ekainaren 25ean eginiko bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hondakin-degi eta zabortegeiak desagertarazi eta antolatzeke plan bat egin dezan. Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hondakin-degi eta zabortegeiak desagertarazi eta antolatzeke plan bat egin dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuak egin dezan hondakin-degi eta zabortegeiak desagertarazi eta antolatzeke plana. Horrela, planarekin eta zerikusia duten toki entitate, eraikuntza enpresa eta beste produkzio-sektore batzuen

elkarlanarekin, eta kaltetutako lurzoruen jabeenarekin, hain zuzen, aipatutako hondakin-degiak desagertarazi daitezela nahi da, eta kaltetutako guneak lehengoratu; halaber, aurreikus daitezela puntu edo gune jakin batzuk eskonbroak eta beste material desegoki batzuk, kontrolpean eta legearen arabera, utzi ahal izateko, beranduago hiri hondakin solidoen tratamendu zentroetara eramán ditzaten.

2.- Hondakin-degi eta zabortegeiak desagertarazi eta antolatzeke plana ez da bost urte baino gehiago indarrean egonen, eta ondokoak izan beharko ditu: hondakin-degi eta zabortegeien inbentarioa, horien kokalekua, egoera administratiboa, natur-inguruneari eragiten dizkion kalteak, horietariko bakoitza desagertarazteko aurreikuspena, hondakinak kontrolpean uzteko leku berriak edo proposatutako guneak, egiten diren jarduketan gutxi gora-beherako kostua, jarduketak egiten dituzten erakunde, entitate edo instituzioak, eta plana eraginkorra izateko aurreikusitako finantziakzioa.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehinez ere sei hilabeteko epean Biltzar honi igor diezaion aipatutako hondakin-degi eta zabortegeiak desagertarazi eta antolatzeke plana, plan hori eztabaidatu eta onets dadin.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aragoiko Diputazio Orokorrarekin hitzarmen bat izenpetu dezan Las Planas de la Negran jartzeko den parke eolikoa gelditzeko

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK BAZTERTUA

Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aragoiko Diputazio Orokorrarekin hitzarmen bat izenpetu dezan Las Planas de la Negran jartzeko den parke eolikoa gelditzeko. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzor-

deak, 1998ko ekainaren 25ean eginiko bilkuran, aipatutako mozioa baztertzea erabaki zuen. Mozio hori 1998ko ekainaren 24ko 48 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Ablitasko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Ablitasko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1997ko azaroaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ablitasko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (6. or.).
- II. Helburua. (6. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (7. or.).
- IV. Iritzia (7. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren kitapenari dagokionean (7. or.).
 - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (7. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (7. or.).
 - IV.4. Finantza-egoera (7. or.).
- V. Finantza-egoerak. 1996ko aurrekontu-betetzea (8. or.).
- VI. Ondorioak eta gomendioak (9. or.).
 - VI.1. Aurrekontua betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (9. or.).
 - VI.2. Egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n (10. or.).
 - VI.3. Udalaren menpeko erakunde autonomoak (11. or.).
 - VI.4. Bestelako iruzkin orokorrak (11. or.).
 - VI.5. Intereseko alor bereziak (12. or.).

Eranskinak

1. Finantza-pasiboen azalpena 1996ko abenduaren 31n (17. or.).
2. Organigrama (18. or.).

I. SARRERA.

Ablitas Tuterako Merindateko herria da, 1996ko maiatzaren 1eko erroldaren arabera 2.231 zuzenbidezko biztanle dituena.

Ablitasko Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Moncayoko Ur Mankomunitatea.
- Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea.
- "Queiles ibarra" Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Hegoaldeko Nafarroa Kirol Mankomunitatea.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearekin bat etorritik, Kontuen Ganbarak bere jarduketa-programaren barruan sartu du Ablitasko Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1996ko ekitaldiko Gastu eta Dirusarreraren aurrekontu- betetzea fiskalizatzeko lana.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakiokkeen legediaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legea (NTOFL), uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa (NTAFL); apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa (TAOFL); 1981eko ekainaren 8ko Araua, Toki Ogasunak eraberritze-ari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregela-

mendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; eta orobat, Nafarroako Toki Erakundeei eskuarki ezar dakiekeen gainerako arautegia.

Txostenaren xedea hurrengo gaiei buruz gure iritzia ematea da:

a) Udalaren eta honen menpeko erakundeen 1996ko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1996ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, eskuarki aplikatzen zaizkion kontabilitate-printzipioen arabera.

c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezkotasun printzipioaren arabera garatu den ala ez aztertzea.

d) Entitatearen egoera finantzarioa 1996ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, bere Jarduketa Programari jarraituz, Ablitasko Udaleko 1996ko ekitaldiko fiskalizazio txostena burutu du.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gainbegiratzeari eta Udalaren ondare-egoera eta egoera finantzarioa aztertzeari lotu zaie lana. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolerako alderdiak jorratu dira, eta gorabeheren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak egin dira, udalera lehendik bidalitako galdetegian agerian geratu diren arazoak direla eta. Horretan Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Instituzionalen Koordinazio Batzordeak (KKO) onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu dira.

Gure lanak izan dituen mugak honako faktore hauek eragin dituzte:

- Udalean ezarri den kontabilitate sistema eskasa, batez ere inbentarioan eragiten duena.

- Udalaren kontabilitate sistemak aurrekontu-betetzearen jarraipena besterik ez du egiten (aurrekontu kontabilitatea); ez da kontabilitate orokorrik aurkezten Udalak ekitaldi bakoitzaren bukieran duen ondare-egoera azaltzen duenik.

Txostenean Udalaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu. Bi eranskin ere jarri ditugu, bat 1996ko abenduaren 31ko finantza-pasiboen zerrenda ematen duena (ikus 1. eranskina) eta bestea entitatearen organigrama agertzen duena (ikus 2. eranskina).

Zelaiko lana 1997ko ekainean egin zen.

Ablitasko Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu baitute.

IV. IRITZIA.

Burururiko fiskalizazioaren barruan, Ablitasko Udalaren 1996ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontu-betetzearen egoera aztertu dugu.

Azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Instituzionalen Koordinazio Batzordeak (KKO) onetsiriko Sektore Publikoaren Auditoretzaren Printzipio eta Arauak aplikatu ditugu.

Gure azterketatik, honako iritzi hau ondorioztatzen da.

IV.1 AURREKONTUAREN GARAPENARI ETA KITAPENARI DAGOKIONEAN.

Gure ustez, 1996ko ekitaldiko Aurrekontuaren Kitapenak Ablitasko Udalak fiskalizaturiko ekitaldian burururiko eragiketen multzoa era arrazoizko batean agertzen du, honako salbuespenekin:

- Dirusarreretan hainbat erresulta daude ekitaldi horretan huts egindakoetara aldatu behar zirenak (ikus V.1. atala)

- Aurrekontu egozketa okerrak daude, nahiz eta ez duten isladarik orokorrik udalak burururiko jardueran.

- 1996ko ekitaldiko eragiketen mozketak desegokia, nahiz eta ez duen ukitzen udalak burururiko jarduerari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa.

IV.2 ONDARE EGOERAREN AZALPENEA.

Ondareari buruzko kontabilitaterik eta ondorioz, egoeraren balantzerik ez dagoenez, ez eta 1992ko inbentarioaren eguneratzerik ere, ezin dugu iritzirik eman 1996ko abenduaren 31n Udalak zeukan ondare egoerari buruz.

IV.3 LEGEZKOTASUNA.

Ablitasko Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioaren arabera garatzen da orokorrean.

IV.4. FINANTZA-EGOERA.

1996ko abenduaren 31n finantza-egoera garbia du Ablitasko Udalak; hala mantenduko balitz aurreko ekitaldiko finantza-pasiboari aurre egiteko moduan egonen litzateke.

Halaber, udal diruzaintzaren egoera egokia da epe motzera; autofinantziazteko gaitasun nahikoa du eta hori azpimarratzekoa da; zorpetze maila zorpetzeko mugaz beherago dago, hau da, ez du gainditzen ekonomikoki gainditu behar ez den muga.

Labur bilduz, eta **ondorio orokor gisa**, nahiz eta Udalak egindako aurrekontuari buruzko informazioak ekitaldiko gastuak eta dirusarrerak modu egokian erregistratzen dituen, Kontuen Ganbarak uste du informazio ekonomiko eta finantzariako gaurko sistema kudeaketa publikoaren beharretara egokitu behar dela. Bide horretan daude txosten honetan bildutako gomendioak.

V. FINANTZA-EGOERAK: 1996KO AURRE-KONTU-BETETZEA.

Ablitasko Udalak aurkeztu dituen finantza-egoerak, 1996ko ekitaldiari dagozkionak, ondoko hauek dira:

- 1996ko ekitaldiko aurrekontuen kitapenari dagozkion dirusarrera eta gastuen egoera.
- 1996 ekitaldiko aurrekontuaren emaitza.
- Diruzaintza-gerakinaren egoera 1996ko abenduaren 31n.

V.1. AURREKONTUAREN KITAPENA. 1996KO EKITALDIA (pezetatan)

Gastuak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko betebeharrak	Kitaturiko ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
0. Itxitako ekitaldien erresultak	18.834.485	0	18.834.485	18.834.485	16.748.285	2.086.200	100	10
1. Langileen ordainketak.	55.551.547	1.538.537	57.090.084	56.772.542	56.555.210	217.332	99	29
2. Ohiko ondasunak erostea	46.306.235	7.041.775	53.348.010	52.907.210	44.013.577	8.893.633	99	28
3. Korrituak	11.127.494	0	11.127.494	8.629.367	8.629.367	0	78	4
4. Ohiko transferentziak	11.551.725	500.000	12.051.725	11.700.614	9.838.569	1.862.045	97	6
6. Inbertsio errealak	116.391.148	9.500.324	125.891.472	22.390.522	15.354.779	7.035.743	18	12
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboen aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboaren aldaketak	22.683.995	0	22.683.995	20.757.137	20.757.137	0	92	11
Guztira	282.446.629	18.580.636	301.027.265	191.991.877	171.896.924	20.094.953	64	100

Dirusarrerak

Kontua/kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa	Kobratzeko dagoena	Betetzea, %	Aitorturiko guztizk. %
0. Itxitako ekitaldien erresultak	12.351.517	0	12.351.517	12.213.087	2.774.856	9.438.231	99	5
1. Zuzeneko zergak	38.356.194	0	38.356.194	42.241.279	39.808.351	2.432.928	110	19
2. Zeharkako zergak	12.360.636	0	12.360.636	12.859.996	12.366.505	493.491	104	6
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	23.441.053	0	23.441.053	25.198.531	24.607.827	590.704	107	11
4. Ohiko transferentziak	69.181.639	0	69.181.639	82.861.354	73.233.335	9.628.019	120	37
5. Ondare dirusarrerak	9.936.292	0	9.936.292	9.737.609	9.737.609	0	98	4
6. Inbertsio errealak besterenganatzea	3.200.000	0	3.200.000	3.875.072	3.875.072	0	121	2
7. Kapital transferentziak	53.568.165	0	53.568.165	15.000.000	0	15.000.000	28	7
8. Finantza-aktiboen aldaketak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboaren aldaketak.	53.568.165	0	53.568.165	19.000.000	19.000.000	0	35	9
Guztira	275.963.661	0	275.963.661	222.986.928	185.403.555	37.583.373	81	100

• 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza.

	Pezetak
1996ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza, doitu gabe	37.616.449
(-) Gastuaren desbideraketa positiboak, finantziazio lotuarekin	(34.000.000)
(+) Gastuaren desbideraketa negatiboak, finantziazioarekin	—
(+) Finantza gastuak, aurreko urtetik diruzaintza-gerakinan dituztenak	—
1996ko aurrekontuari egotzi dakioken aurrekontu emaitza	3.616.449

• 1996ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakinaren egoera

	Pezetak
Urteko aurrekontuan kobratzeko dauden eskubide aitortuak	28.145.142
Itxitako aurrekontuetan kobratzeko dauden eskubide aitortuak	9.438.231
Aurrekontuaz besteko eskubideak (ABIL)	—
Ken kobratzen zailak diren hartzekodunak	(2.437.000)
Urteko aurrekontuan ordaintzeko dauden betebeharrak aitortuak	(18.008.753)
Itxitako aurrekontuetan ordaintzeko dauden betebeharrak aitortuak	(2.086.200)
Aurrekontuaz besteko betebeharrak (ABIL)	(1.670.793)
Finantza-kontuetako hartzekoduna	15.177.424
Gerakina, guztira, 1996ko abenduaren 31n	28.558.051

VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian ondorioak eta Udalaren antolaketa eta barne kontrolerako sistema hobetzeko, horrela kudeaketan hobekuntza lortuz, egoki iruditzen zaizkigun gomendio orokorrak eman ditugu.

VI.1. AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

IV Atalean Iritziari buruz esandakoa kontutan hartuz, aurrekontua betetzetik eratortzen diren honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

Ablitasko Udalaren 1996ko ekitaldiko aurrekontua 1996ko ekainean onetsi zen.

Aurrekontuaren betetzea Osoko Bilkurak onetsi gabe dago.

1996ko aurrekontuko dirusarreraren eta gastuen betetze maila altua da, ehuneko 64 eta 81, hurrenez hurren.

a) Aurrekontuan 28 milioi pezetako inbertsio erreala ezarri zen pilotaleku bat eraikitzeko; pilotaleku hori, 1996ko ekitaldia ixteko garaian, artean

proiektua idazteko fasean dago, eta lanak esleitu-ta daude jada.

b) Halaber, 74 milioi pezetako inbertsio errealeko gastua ezarri zen aurrekontuan, Kulturetxea eraikitzeko. Beste aldetik, lan horren finantziazioa ere aurrekontuan jarri zen, hau da, 37 milioi pezeta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza batetik eta 37 milioi pezeta bankuko finantziazioaren bidez eskuratzekoak. Aipatu dirulaguntza ezin izan da eskuratu; beraz, lanak ez dira burutu.

1996ko aurrekontu-betetzeak, aurreko urteetako erresultak kenduta, 210.773.841 pezetako aitorturiko eskubideak agertzen ditu; aitorturiko betebeharrak, berriz, 173.157.392 pezeta egiten dute. Beraz, aurrekontu-betetzeak 37.616.449 pezetako superabita agertzen du.

Gastuen egoeran (ikus IV. atala) aitorturiko betebeharrak buruzko kapitularik garrantzikoena, langileen lansariena da, izan ere gastu guztien ehuneko 29 egiten baitu. Ondotik ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketa eta inbertsioak datoz, izan ere ehuneko 28 eta 12, hurrenez hurren.

Dirusarrerren egoeran (ikus IV. atala) kapitularik garrantzizkoenak ohiko transferentzia eta zuzeneko zergena da, izan ere ehuneko 39 eta 19ko aitorturiko eskubideak agertzen baitituzte, hurrenez hurren.

Beste aldetik, badaude gastuen eta dirusarrerren egozketa okerrak, beren izaera ekonomikoari dagokionez, eta eragiketen mozketa behar ez bezalakoa.

Gure azterketan zehar, agerian jarri da 1996ko aurrekontuaren kitapena ondoko zenbatekoetan aldatu behar zela:

a) Aurreko ekitaldiei zegozkien gastuak eta dirusarrerak bildu dituzenez, 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzeak, gutxi gora-behera, gastuetan 3.695.353 pezeta gehiago bildu ditu eta dirusarreretan 2.165.611 pezeta gehiago.

b) 1996ko ekitaldian sorturiko gastu eta dirusarrerengatik, urte horretako aurrekontuaren kitapenean sartu ez direnak, aurrekontu horrek, gutxi gora-behera, 5.716.553 pezeta gehiago agertu behar zituen gastuetan eta 1.656.472 pezeta gehiago dirusarreretan.

c) Gure ustez oker egindakoetara aldatu behar ziren –batez ere zaharrak direlako– dirusarrerren erresultetan sarturiko kontusailengatik, kontusail horiek 2.437.000 pezeta gutxiago agertu behar zituzten.

Aurreko paragrafoekin bat etorritik, honako hau gomendatzen da:

Udalaren aurrekontuen behin betiko onespenerari buruz indarrean dagoen legedian ezarritako epeak betetzea.

Gastuen eta dirusarrerren kontabilizazioak beren sortzapenaren arabera agertu behar du, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko, kredituen muga-izaera errespetatuz edo/eta aurrekontu-aldaketak eginez, hala behar izanez gero.

Gastuak eta dirusarrerak behar diren epigrafean kontabilizatu behar dira, jatorri ekonomikoaren arabera; horrela, aurrekontu-betetzeari buruzko zerbaiten distortsioa saihesti daiteke.

Toki sektore publikorako kontabilitate plan orokorra ezartzea, hori udalak dauzkan langileekin egin ote daitekeen aztertuz; horretarako modurik ez badago, itun bat egin daiteke beste toki entitateen batekin. Plan hori 1998 urterako ezartzea aurreikusitako da.

VI.2. EGOERA EKONOMIKOA 1996KO ABENDUAREN 31N.

• Jaso dugun informazioaren arabera eta aintzat hartuta txosten honetan biltzen diren iruzkinak, Udalak ondoko finantza egoera dauka 1996ko abenduaren 31n:

	Pezetak
Dirusarrerren erresultak	37.583.373
Diruzaintzako hartzekoduna	13.506.631
Gastuen erresultak	(20.094.953)
Superabita	30.995.051

Superabit hori, dena den, doitu egin beharko litzateke kobratzeko dauden 2.437.000 pezeta inguruko ordainagiritako akats eta ordainezintasunarengatik, aurreko VI.1. atalean zehaztu den bezala.

• Ondoko koadroan aurrekontuan aitorturiko gastu eta dirusarrerren osaketaren ehunekoak eman ditugu, betiere haien jatorriaren arabera:

Jatorria	Gastuak	Dirusarrerak
Ohiko eragiketak	75	82
Kapital eragiketak	25	18
	100	100

• Beste aldetik, jarraian eman ditugu 1996 eta 1995 urteetako aurrekontu-betetzeetatik atera ditugun ratio eta magnitude batzuk, Udalak berak aurkeztuak:

	(milioi pezetatan)	
Ratio eta magnitudeak	1996	1995
Superabita/ (Defizita)	31	(5)
Aurrezki gordina (1)	52	44
Aurrezki garbia (2)	22	14
	(pezetatan)	
	1996	1995
Tributu-dirusarrerak biztanle bakoitzeko (3)	46.134	40.589
Dirusarrerak per cápita	10.036	4.461
Finantza karga biztanle bakoitzeko	13.172	12.930
Gastu publikoa per cápita	86.056	65.131

	(ehunekoa)	
Ratios y magnitudes	1996	1995
Zorpetze maila (4)	17	19
Zorpetzearen muga (5)	30	29

(1) Ohiko dirusarrerak – funtzionamendu gastuak.

Ohiko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarreraren eta funtzionamendu gastuen lehenbiziko kapitulutik bosgarren kapitulura eta gastuetako 1, 2 eta 4. kapituluak.

(2) Aurrezki gordina – finantza karga.

Finantza kargatzat hartu ditugu gastuen 3 eta 9. kapituluak

(3) Tributuen bidezko dirusarrerak / eskubidedun populazioa.

Tributuen bidezko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarretako 1etik 3. kapitulura bitartean.

(4) Finantza-karga / Ohiko dirusarrerak x 100

(5) Aurrezki gordina / Ohiko dirusarrerak x 100

Jarraian, aurreko ratio eta magnitudeak komentatuko ditugu, kontuan hartuta, betiere, 1995eko datuak ikuskatu gabe daudela. Dena den, datu horiek alderatuta, ondorio hauek atera ditugu:

- Bi ekitaldietan aurrezki gordinak eta aurrezki garbiak positiboak dira, eta 1996an igo egin dira; horrek esan nahi du udalak bere baliabide propioak sortzen dituela dirusarrerak finantziatu ahal izateko.

- Tributuen bidezko dirusarrerak eta biztanle bakoitzeko finantza karga –46,769 pezeta eta 11.078 pezeta hurrenez hurren– antzekoak dira 1996an eta 1995ean; Nafarroako Udalen 1995eko ekitaldiko batezbestekoaren parean daude. Dena den, alderaketa horietan aintzat hartu beharko litzateke elkartzeko-formularen bidez –nagusiki mankomunitateak– ematen diren zerbitzuen eragina.

- Per cápita-ko inbertsioak eta gastu publiko nabarmen handitu dira 1996an, izan ere 1995ean 10 milioi pezeta inbertitu ziren bitartean, 1996an 22 milioi pezetako inbertsioak egin ziren.

- Zorpetze maila zorpetzeko muga baino txikiagoa da; horrek bidea ematen du toki on bat izateko etorkizuneko ekitaldietan; horri ondoko leerroaldean zehazten dena erantsi beharko genioke:

1. eranskinetik ondoriozta daitekeenez, mailegu eta diru-aurrerakinengatik hartutako zorra 87.307.968 pezetakoa da 1996ko abenduaren 31n.

1996ko ekitaldiko finantza-karga ondoko zenbatekoetan eman da:

	Pezetak
Zorren amortizazioengatik	20.757.137
Korrituengatik	8.629.367
Guztira	29.386.504

Ondorioz, Udalaren egoera ekonomikoa ez bada aldatzen edo mantentzen bada, eta zorren mugaegunak aintzat hartuta, esan daiteke Udalak hurrengo ekitaldietan pasibo horiei aurre egin ahal izanaren diela.

VI.3 UDALAREN MENPEKO ERAKUNDE AUTONOMOAK.

Ez dago Udalaren menpeko erakunde autonomo bakarra ere.

VI.4 BESTELAKO IRUZKIN OROKORRAK

VI.4.1 Aurrekontu sistema eta barne kontrola

Udalak erabiltzen duen kontabilitate sistema aurrekontu kontabilitateari dagokiona da. Aurrekontua sailkapen ekonomikoarekin batera aurkeztu eta betetzen da.

Udalaren kontabilitatea aplikazio informatiko baten bidez burutzen da. Aplikazio hori gaur egun desagertuta dagoen sozietate batek prestatu zuen; beraz, Udalak ez du aplikazio informatiko horien mantenimendua egiteko modurik. Jaso dugun informazioaren arabera, Sektore Publikoko Kontabilitate Planera egokitzeko programa instalatzeko prozesuan daude, finantza entitate baten laguntzarekin.

Egindako azterketatik, ondoko puntu hauek azpimarratu behar ditugu:

- 1996ko aurrekontua betetzeko oinarriak badaude.

- Ez dago oinarrizko eragiketetan aplikatu beharreko kontabilitate irizpideak zehazten dituzten ibilbide kontable eta administratibo nagusiei buruzko prozedura idatzirik.

- Gastuak ez dira erregistratzen sortzen diren unean. Ondorioz, ohartu gara ez dela eragiketen mozketak egokia egiten; hori dela eta, gastuen eta dirusarreraren zenbait kapitulutuan aurreko ekitaldiak eta urte berekoak erregistratzen dira eta, beste aldetik, urte bereko ekitaldiko zenbatekoak hurrengo urtean erregistratzeko geratzen dira. Zenbateko horiek ez dute garatutako udal jarduerari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa aldatzen; txostenean zehar zehaztu ditugu.

- Zenbait akats ikusi ditugu zenbait gastu eta dirusarrera dagozkien kapituluetan egozteko garaian. Akats horiek ez dute garatutako udal jarduerari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa aldatzen; txostenean zehar zehaztu ditugu.

Aurreko lerroaldeetan zehaztu dugunaren araber, ondoko gomendioak eman ditugu:

Kontabilitateko oinarrizko prozedurak bilduko dituen eskuliburu bat prestatzea, bereziki ondokoak garatuko dituena:

a) *Prozedura bakoitzean aplikatu beharreko kontabilitate irizpideak*

b) *Aldiro koadratzea eta egiaztapenak egitea.*

c) *Ixteko eragiketak*

d) *Saldoen azterketa.*

Gastuak eta dirusarrerak sortzapenari jarraituz kontabilizatzea aurrekontu betetzean; gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-egozketa jatorri ekonomikoaren arabera kontabilizatzea.

VI.4.2 Ondasun higiezinak eta komunalak. Udalaren inbentarioa.

Ondasunen inbentarioa TRACASA enpresa publikoak burutu zuen 1992an. Udalak ez du inbentario hori eguneratu.

Beste aldetik, Udalak eskrituraturik eta Jabetzaren Erregistroan erregistraturik dauzka bere jabetzapeko ondasun higiezinak eta komunal gehienak.

Ondokoak gogoratu behar ditugu:

Udal inbentarioa eguneratu behar da, Udalaren jabetzapeko ondasunak behar bezala bil ditzan.

Behar diren neurriak hartu behar dira ondasun guztiak eskrituratzeko eta Jabetzaren Erregistroan erregistratzeko.

VI.5 INTERESA DUTEN BERARIAZKO ZENBAIT ALOR.

VI.5.1 Langileen soldatak

Hauak dira 1996 ekitaldiko langileen kapitulari buruzko xehetasunak:

	(pezetatan)
	Kitaturiko betebeharrak
Oinarrizko ordainsariak	25.656.035
Bestelako sariak	2.172.858
Famili osagarria	1.327.577
Lan kontratupeko langileak	2.889.670
Kontratupeko langileak	1.996.218
Gizarte aseguruak	22.730.184
Guztira	56.772.542

Langileriaren kapituluak gastuetan aitorturiko guztizkoaren ehuneko 29 egiten duten aitorturiko betebeharrak biltzen ditu.

Labur bilduz, 1996ko abenduaren 31n, hauek dira Udalean lanean ari diren langileak:

Funtzionarioak	8
Aldi baterako lan kontratudunak	1
Guztira	9

Langile funtzionarioak honela banatuta daude:

Idazkaria	1
Administrari ofiziala	1
Administrari laguntzailea	1
Aguazilak	1
Mandatariak	2
Sanitarioak	2
Guztira	8

Diruzaintza Udalak berak kudeatzen du.

Ez dago idatziz jarririk enplegatutako bakoitzak zer eginkizun dituen. 2. eranskinean, organigrama gutxi gora-beherako bat eman dugu.

Arlo honetan datuak sortzeko eta kontabilizatzekeo jarraituriko prozeduren azterketa eginda, ondokoa geratu da agerian:

- Udalarekin lan harremanen bat daukaten pertsona guztiek kasuan kasuko kontratua sinatu dute, eta plantilan sartzeko indarra duen legediari jarraitu zaio.

- Lan kontratupeko langileen nominak honela prestatzen dira:

a) Hilabetero nomina Data liburuan kontabilizatzen da igorpen batez: lansari gordina ken Gizarte Segurantzaren kuota. PFEZari dagozkion zenbatekoak hilabetero kontabilizatzen dira ABIL liburuan.

b) Hiruhilero, PFEZaren atxikpenak Ogasunean sartzeko garaian, igorpen bat egiten da ABIL liburuan, atxikitako zenbateko guztiak barne hartzen dituena.

c) Hilabetero, kotizazioak Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan sartzeko garaian, bai langilearen kargura bai Udalaren kargura, igorpen bat egiten da Data liburuan, ordaindu beharreko guztizko zenbatekoa hartzen duena.

Kontabilitate prozedura horren ondorioz, Data liburuan Udalaren karguko langileen eta Gizarte Segurantzaren gastu osoa biltzen da.

- Funtzionarioek lan egindako aparteko orduak ez dira enpleguaren nominan sartzen; beraz, ez dute PFEZaren atxikipenik izan behar.

- Urtean zehar lansarrietan aldaketarik egiten bada, mailaz edo graduz aldatu delako, aldaketa horiek urte guztian zehar hainbanatzen dira.

Aurreko lerroaldetako iruzkinei jarraituz, ondoko gomendioak eman nahi ditugu:

Enplegatu bakoitzaren eginkizunak idatziz ematea.

Espediente bat egitea enplegatu bakoitzarentzat.

Udalaren karguko lan kontratupeko langileen nomina eta Gizarte Segurantzaren gastua kontabilizatzerakoan, idazpen bakarra egin beharko litzateke Data liburuan, horren guztiaren zenbateko gordina hartuko lukeena; hori guztia egokia den kontabilitate agiri bat erabiliz. Enplegatuaren karguko PFEZaren atxikipenak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak hilabetero erregistratu beharko lirateke, behar den kontabilitate agiria erabiliz, ABILeko kasuan kasuko idazpuruan.

VI.5.2 Ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketak

Erosketek eta zerbitzuengatikoko gastuek guztizko gastuaren ehuneko 28 egiten dute, ondoko azalpenean ikusten den bezala:

	(pezetatan)
	Kitaturiko betebeharrak
Bulego gastuetarako ohiko zenbatekoa	1.717.075
Higiezinetakoko gastuak	8.968.250
Zerbitzuen funtzionamendurako gastu bereziak	30.222.907
Inbertsioen kontserbazioa eta ohiko konponketak	10.571.185
Bestelako gastuak	1.427.793
Guztira	52.907.210

Zerbitzuen funtzionamendurako gastu bereziek artikulu horretako gastu guztien ehuneko 57 egiten dute. Hona hemen zenbait xehetasun:

	Pezetak
Herriko festak	9.882.802
Argiteria publikoa	5.411.626
Araztegiko elektrizitate gastuak	3.749.178
Garbiketa zerbitzuak	3.378.898
Besterik	7.800.403
Guztira	30.222.907

Prozeduren eta kontabilizaturiko zenbatekoen azterketa eginda, ondorio hauek atera ditugu:

- 1996ko ekitaldian eragiketen mozketak desgokia egin da. Gure azterketan oharturiko kontzeptuen gutxi gora-beherako zenbatespenak 2.053.000 pezeta islatzen ditu 1996an, aurreko ekitaldiei dagozkienak, eta 1996 ekitaldiari dagozkion 4.147.000 pezeta kontabilizatu dira 1997an.

- Gastuen kapitulu honetako artikulu jakin batzuetan sarturik, Udalak inbertsio errealei dagozkien zenbatekoak bildu ditu. Hona hemen zenbateko horien zenbatespena:

	Mila pezetakoak
Inbertsioen kontserbazioa eta ohiko konponketak	1.242.626
Higiezinetakoko gastuak	113.353
Guztira	1.355.979

- Zenbait ordainketa-aginduren euskarri dokumentala ez da nahikoa.

- Udalak hirugarrenekin kontratatzen ditu zenbait zerbitzu: garbiketa, mantenimendua, sorosleak eta igerilekuetako zaindariak eta musika irakasleak. Musika irakasleen kontratazioari dagokionez, ez dago kontratazio prozedurarik. Hemen jaso ditugun zerbitzuetan ari diren langileek ez duten inongo lan harremanik Udalarekin eta ez da harreman hori aipatu ere egiten bi alderdiek sinaturiko kontratuetan. Mantenimendu zerbitzuetan ezik, zerbitzu horietan lanean ari direnek ez dute fakturarik igortzen eta egindako ordainketa ez da PFEZaren atxikipenik egiten.

Zehaturikoaren arabera, hona gure gomendioak:

Kontabilitate agiriekin batera beti egiaztagiri nahikoa egotea.

Kontratuari buruzko Foru Legea eta zerbitzu publikoen kontratazioa arautzen duten gainerako arauak estu betetzea.

VI.5.5. Inbertsio errealak.

Kapitulu honek 22.390.522 pezetako onartutako betebeharrak biltzen ditu; aurrekontuaren betetze osoaren ehuneko 12 dira. Haien betetzeak behin betiko aurrekontuaren ehuneko 18 egin du.

Betetze maila baxu horren arrazoia batez ere izan da hasiera batean 74 milioitako aurrekontua zuen lana, hau da, Kulturetxearen eraikuntza, ez dela burutu.

Lan hori finantzatzeko Udalak ondoko aurrekontua egin zuen:

	Milioi pezetatan
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	37
Banku-mailegua	37
Guztira	74

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso ez duenez, Udalak erabaki du lan horiek hurrengo ekitaldiren baterako uztea, izan ere lanak osorik finantzatzeko biderik ez duelako.

Hona hemen 1996ko ekitaldian eginiko inbertsioei buruzko zenbait xehetasun:

	Pezetak
Ikastetxe publikoa	8.750.324
Udal pilotalekua	4.569.022
Kaleetan zorua jartzea	3.230.670
Igerilekuak	3.087.782
Besterik	2.752.724
Guztira	22.390.522

Egindako azterketaren ondoren, ondoko puntuak azpimarratu nahi ditugu:

- Ez da kontraturik egiten Udalaren eta kontratisten artean.

- Kontratistek ez dute behar den fidantza aurkezte obra esleitzen zaien unean. Fidantza ehuneko 4koa da eta obra-ziurtagirien ordainketatik atxikitzen zaie.

- Kontratatze prozedura tokian tokiko etxegileei gonbitea egitea da; esleipen zuzena erabiltzen da kontratazio prozedura gisa.

- Udal pilotalekuari dagokion idazpuruan, 3.016.000 pezetako gastua dago, udal kiroldegiko futbol zelaian ureztatze eta ereite sistema bat jartzeko lanengatik.

Gainerako zenbatekoak, batez ere, pilotaleku-ko obrari dagozkion lansarien eta azterlanen gastuak biltzen ditu.

Pilotalekuko obrari dagokion lizitazio aurrekontua 1996ko urriaren 11n onetsi zen. 31.414.366 pezetakoa da.

1996ko abenduaren 9an, Udalaren Osoko Bilkurak lanak 29.101.252 pezetatan esleitu zituen, lehiaketa publikoaren bidezko behar den esleipen prozesua egin ondoren.

Hona hemen obra nola finantziatuko den:

	Pezetak
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	15.000.000
Kanpoko finantziakzioa	19.000.000
Guztira	34.000.000

1996ko abenduaren 31n Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza hori emana dago (ikus VI.5.7 atala) eta Udalak kreditua kontratatua du (ikus VI.5.8 atala).

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoa ikusirik, hona gure gomendioak:

Kontratuari buruzko Foru Legea eta zerbitzu publikoen kontratazioa arautzen duten gainerako arauak estu betetzea.

Barne kontroleko tresnak ezartzea, inbertsioen betetze egokia bermatzeko, haien kudeaketa zuzena galdatzen duten oinarrizko aspektuak eta prozedurazko eta legezko aspektuak begiratzuz, bai ikuspegi ekonomiko eta arrazionaletik, bai legezketasun printzipioari men egiteari dagokionean ere.

VI.5.4. Gastuetako bestelako kapituluak

A) Korrituak

1996ko gastuen aurrekontuaren kitapenean 1995eko ekitaldian sorturiko zenbait gastu bildu dira (1.642.353 pezeta); 1996an sorturikoak, berriz, 1997ko ekitaldian erregistratu dira (1.569.553 pezeta).

B) Finantza-pasiboen aldaketak

Gastuen aurrekontu honetan, 2.263.391 pezetako zenbatekoa bildu da, korrituek sortarazitako gastuei dagozkienak.

VI.5.6. Tributuen bidezko dirusarrerak

1996ko aurrekontuaren kitapenaren arabera, tributuen bidezko dirusarrerek ondoko betetzea izan dute:

Kapitulua	(pezetatan)		
	Behin betiko aurreikuspena	Kitaturiko eskubideak	Kitaturiko dirubilketa
Zuzeneko zergak	38.356.194	42.241.279	39.808.351
Zeharkako zergak	12.360.636	12.859.996	12.366.505
Tasak eta bestelako dirusarrerak	23.441.053	25.198.531	24.607.827
Guztira	74.157.883	80.299.806	76.782.683

Tributuen bidezko dirusarrerek Udalaren dirusarrera guztien ehuneko 40 egiten dute.

Ondoko koadroan kapitulu horien betetzea eman nahi izan dugu, zergagaien arabera sailkatuta:

Zerga mota	Kitaturiko eskubideak (pezetak)	Kitaturiko guztizkoaren %
Landa kontribuzioa	6.658.440	8
Hiri kontribuzioa	26.824.139	34
Lizentzia fiskala	8.758.700	11
	42.241.279	53
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	1.812.643	2
Zirkulazio zerga	10.158.983	13
Telefonicaren kanona	888.370	1
	12.859.996	16
Hirigintza lizentziak	4.282.913	5
Zaborren tasa	7.984.382	10
Kiroldegiko tasak	3.103.710	4
Herrilurren kanona	4.853.881	6
Iberdrolaren tasa	1.075.568	1
Bestelako tasak	3.898.077	5
	25.198.531	31
Guztira	80.299.806	100

Zenbateko eta tasa horiek Udalak onetsitako ordenantzen arabera biltzen dira.

Aplikatzen diren kontrol prozedurak eta alor honetan kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, honako hau ohartu dugu:

- Ez erroldak, ez horien beranduagoko aldaketak ez ditu Osoko Bilkurak onesten.

- Ordaintzeko borondatezko epea iraganik, ez da aplikatzen atzerapen erreargua.

- Dirubilketako agenteari ez zaio kontraturik egin eta ez zaio fidantzarik eskatu.

- Hirigintza lizentzien izenburupean, 4.018.913 pezetako zenbatekoa jarri da, baina eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergei dagozkie.

- Halaber, kontzeptu horiei buruzko eragiketen mozketak ez da behar bezala egin. Buruturiko lanaren arabera, kontzeptu horien gutxi gora-beherako zenbatespenari jarraituz, 1996an 1.384.861 pezeta erregistratu dira, aurreko urteei zegozkienak; 1997an 823.049 pezeta kontabilizatu dira 1996 urteari zegozkienak.

- Itxitako ekitaldien erresulten eta urteko ekitaldiaren ondorioz, dirusarrera fiskaletatik heldu diren zenbatekoak erregistratu dira. Egindako azterketatik abiatuta, gure ondorioa da haietako batzuk oso zaharrak direla eta horregatik kobrazinak; horren ondorioz, akats egindako kontusailertara aldatu beharko lirake (2.437.000 pezeta inguru egiten dute, guztira).

Aurreko lerroaldeetan komentatutakoaren arabera, hona gure gomendioa:

Dirusarrera fiskalei eta haien aldatetegi dagozkien erroldak Osoko Bilkurak onestea.

Luzapenak direla-eta aplikatu beharreko errearguak aplikatzea, behin ordaintzeko borondatezko epea iragan ondoren.

Dirubilketako Agenteari dagokionean, egoera legezatu behar da ordaindu beharreko fidantza dela eta.

Kobratzeko dauden zenbatekoak kobratu ote daitezkeen azterketa erabatekoak egitea, aldiro.

VI.5.6. Ohiko transferentziak.

Ohiko transferentziek kitaturiko eskubideen 82.861.354 pezetako zenbatekoa biltzen dute. Dirusarrera guztien ehuneko 37 egiten dute. Zenbateko horrek kontzeptu hauek biltzen ditu, batez ere: Funtzionarioen Montepioa, Toki Ogasunen Lurraldeko Fondoaren partehartzea, lurralde-erakundearen bestelako ohiko dirulaguntzak eta Estatuko tributuen partehartzea.

Aplikaturiko kontrol prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu ondoren ondokoa ohartu dugu atal honetan:

Dirusarreren aurrekontuaren kitapenean, 1995ean eta aurrekoetan sorturiko zenbait dirusarrera bildu dira; beste aldetik, ez dira sartu 1996ko ekitaldian sorturiko beste dirusarrera batzuk.

Burutu dugun lanari jarraituz, kontzeptu horien gutxi gora-beherako zenbatespenaren arabera,

1996an 780.750 pezeta erregistratu dira, aurreko ekitaldieei zegozkienak eta 1997an erregistratu dira 1996ko ekitaldiari zegozkion 833.423 pezeta.

- Ohiko transferentzien barnean, 6.615.000 pezetako zenbatekoa ageri da, Nafarroako Gobernuak ikastetxe publikoan egin beharreko lan batzuk egiteko dirulaguntzari dagozkionak.

Gure ustez, egokiena izanen litzateke zenbateko hori kapital transferentzietan erregistratzea.

VI.5.7. Kapital transferentziak

Kapital transferentziek 15.000.000 pezeta egiten dute, hau da, dirusarrera guztien ehuneko zazpi; obrak egiteko dirulaguntzak biltzen dituzte. Horien betetzea behin betiko aurrekontuaren ehuneko 28koa izan da. Horren betetze maila baxuaren arrazoiak VI.5.3. atalean azaldu ditugu.

VI.5.8. Finantza-pasiboen aldaketak.

19.000.000 pezetako betetzea dute. Dirusarrera guztien ehuneko 9 egiten dute. Haien betetzeak behin betiko aurrekontuaren ehuneko 35 egin du. Horren betetze maila baxuaren arrazoiak VI.5.3. atalean azaldu ditugu.

Dirusarreraren aurrekontuaren kapitulu honek pilotalekuko lanak eta udal kiroldegian egiteko ziren beste batzuk finantziatzeko banku-kreditu bat ere biltzen du.

Udalak 1996ko ekitaldiko guztizkoaren dirusarrera gisa 19 milioi pezeta erregistratu ditu, izan ere uste izan delako inbertsioak finantziatzeko kredituak maileguak bezala direla.

Kreditu horretako 6 milioi 1996ko abenduaren 31n erabili dira. Erabiltzeko dagoen zenbatekoa, 13 milioi, Diruzaintzaren aurrekontu gisa hartu da kitapenean.

Gure iritziz, epe luzeko kreditu-kontuak finantza pasiboen zerrendan islatu beharko lirateke (erabili den zenbatekoa), eta eskudirutan hartutakoa eta kredituaren itzulketak finantza pasiboen aldaketarengatik sorturiko dirusarrera eta gastu gisa, hurrenez hurren.

VII.1 eranskinean Ablitasko Udalak ordaindu beharreko maileguen zerrenda agertu dugu.

VI.5.9. Diruzaintza

Alor honetan egindako berrazterketa abiaburu hartuta, zenbait akats ikusi ditugu erabilitako prozeduretan; akats horiek zuzendu egin beharko lirateke, betiere ondoko gomendioei jarraituz:

Idatziz zehaztu eta idaztea haren funtzionamenduari buruzko arau guztiak.

Finantza entitateetan edukitako saldoak erregulartzatzea, izan ere informazioa eskatu genien entitateen berrespena aurrekontuaren kitapenean agerituen diruzaintzako saldoa baino handiagoa delako.

Diruzaintzako berdinkatzeak egitea finantza entitateetan edukitako fondoekin, hilabete behin. Berdinkatze horiek udal fondoetako erantzuleak dokumentatu eta sinatu beharko ditu.

VI.5.10. Aurrekontuko Balore Independenten eta Aurrekontuko Lagungarrien Liburua (ABIL)

ABILen jasoko dira kontabilitatez kanpoko izaera duten eragiketa guztiak eta Udalarentzat gas turik nahiz dirusarrerarik ekartzen ez dutelako aurrekontuan jasotzerik ez dauden balore edo fondo guztiak, hain zuzen ere Udala dirubiltzaile edo diruzain hutsa delako.

Liburu horretan erregistraturiko kontzeptu eta zenbatekoak berraztertu ondoren, ohartu gara Udalak soilik eragiketa haiei buruzko idazpenak erregistratzen dituela bertan.

Liburu horren zertarakoa ikusita, ekitaldian sorturiko emaitzak diruzaintzari dagozkio.

Gure gomendioa da zenbaketak, diruzaintzako adospenen eta bankuko berdinkatzeak hilabete behin egitea eta idatziz jasotzea. Berdinkatzeetan sor litezkeen aldeak antzeman eta zuzentzeko kontrol sistemak ere ezarri behar dira.

VI.5.11. Hirigintza

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondarea eratu.

Udalak Udal Arau Subsidiarioak ditu. Katastroen azken eguneratzea 1990ean burutu zen.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen arabera, gogorarazi nahi dugu Lurzoruaren Udal Ondarea eratu behar dela eta bertan sartu behar direla hirigintza planeamenduak lurzoru urbanizagarri edo lurzoru organizagarri programatu gisa sailkaturiko ondarezko ondasun guztiak. Edozein kasutan ere, Ondare horretan sartuko dira lagapenen –lurzoruak edo eskudirua-, edozein modutako desjabetzaren eta tanteatze eta atzera-eskuratzearen ondorioz eskuratutako ondasun guztiak.

Udal Ondareari buruzko inbentarioa 1992an burutu zen.

Gure gomendioa da udal ondareari buruzko inbentarioa eguneratzea, bai eta hura kontrolatzeko sistemaren bat ezartzea ere.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Fco. Javier Tuñón San Martín

ERANSKINAK**1. ERANSKINA. FINANTZA-PASIBOEN AZALPENA 1996KO ABENDUAREN 31N.**

(pezetatan)


Mailegua/aurrerakina	Zertarako	Hasierako zenbatekoa	Interesa, %	Mugaeguna	96-12-31n ordaintzeko dagoen kap.
Nafarroako Gobernua	Sareak saneatzea	18.559.785	0	1998	1.237.319
Banco Cto. Local (1)	Abelbidea, erosketa	14.460.070	12,00	1997	300.583
Nafarroako Rural Kutxa	Belarrak berrerostea	25.000.000	Mibor+1	2001	16.204.131
Iruñeko Aurrezki Kutxa	Diruzaintza	18.150.000	Ceca+0,25	2005	16.335.000
Iruñeko Aurrezki Kutxa	Zoraren konber.	21.850.000	Ceca +0,25	1999	13.110.000
Iruñeko Aurrezki Kutxa	Hirurteko plana	5.700.000	Ceca +0,25	2004	5.780.903
Ibercaja	Jubilatuen Elkarte	45.171.184	Aldakorra	2001	27.102.712
Banco de Santander (2)	Pilotalekuko obrak	19.000.000	Mibor+0,09	2008	6.000.000
		167.891.039			87.307.968

(1) Maileguetako polizarik ez dago

(2) Banku kreditua

OHARRA: 96-12-31n ordaintzeko dagoen kapitalak ez du barne hartzen Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Departamentuaren baso birlandaketak egiteko 7.960.980 pezetako aurrerakina. Eragiketa horrek ez du interes tasarik batere sortzen eta ez du mugaegun jakinik.

2. ERANSKINA. UDALAREN ORGANIGRAMA 1996KO ABENDUAREN 31N.



F= Funtzionarioa

ABLK= Aldi baterako lan kontratuduna



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri
edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--